

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

R 10/2011 ebazpena

15/2008 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 2an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioaren aurka planteatutako gatazka honen inguruan: bi administrazioetatik zein den eskuduna “AAAAAAA, SA” entitateak, IFZ..... zenbakidunak, 2006ko irailaren 20ra arte egindako eragiketen Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko. Data horretan, “AAAAAAA” entitateak Nafarroara aldatu zuen sozietate helbidea.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2008ko maiatzaren 9an planteatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arbitraje Batzordean maiatzaren 12an erregistratu zen idatzia dela medio. Idatzi horretatik jarraian laburtzen diren aurrekariak ondorioztatu dira:

1.- 2006ko ekainaren 21eko Batzar Nagusian, “AAAAAAA, SA” entitateak, IFK zenbakidunak –aurrerantzean “entitatea”– erabaki zuen sozietate helbidea Gipuzkoatik Nafarroara aldatzea, eta halaxe geratu zen jasota 2006ko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

irailaren 20ko eskritura publikoan. Harrez gero, entitate hori Nafarroako Foru Komunitatean hasi zen tributatzen Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 1272002 Legearen bidez onartuak, 27.Bat.hirugarrena eta 43.Zazpi artikuluetan orduko idazkeraren arabera jasotakoari jarraiki.

2.- Entitateak Nafarroako Foru Komunitatean aurkeztu zuen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2006ko hirugarren hiruhilekoari dagokion aitorten-likidazioa, hiruhileko horretan egindako eragiketa guztiengatik.

3.- Ondoren, 2007ko apirilaren 10ean Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuan erregistratutako idatzian, entitateak adierazi zuen aitorten-likidazio hori gaizki egina zegoela 2006ko irailaren 20ra arte sortutako eta jasandako BEZaren kuotak bertan sartuta zeudelako. Kuota horiek Gipuzkoan aitortu behar ziren, entitateak helbidea aldatu aurretik sortu eta jasandako kuotak direlako. Idatziarekin batera, aitorten-likidazioa aurkeztu zuen entitateak, XXXXXXXX euro ordaintzeko emaitza zeukana, eta ordainketa Nafarroako Ogasunetik transferentzia bidez egindakotzat hartzeko eskatu zuen entitateak.

4.- Aldi berean, Nafarroako Ogasunari aurkeztutako beste idatzi batean, entitateak eskatu zuen aipatutako aitorten-likidazioa zuzendutzat emateko, lehen esandako terminoetan, eta, beraz, Nafarroako Ogasunari ordaindutako XXXXXXXX euroko zenbatekoa Gipuzkoako Foru Ogasunari transferitzeko.

5.- 2007ko urriaren 8ko Ebazpenean, Nafarroako Gobernuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan Balio Erantsiaren gaineko Zergaz arduratzen den Ataleko buruak ezezkoa eman zien bai eskaerari bai transferentziari, zerga horren likidazioaldiak ezin direla zatikatu argudiatuta.

6.- Martxoaren 13ko 263/2008 Foru Aginduaren bidez, GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuak inhibitzeko errekerimendua bidali zion Nafarroako Zerga Administrazioari, entitateak 2006ko irailaren 20ra arte egindako eragiketen aitorten-likidazioa kudeatu, likidatu eta biltzeko eskumenei dagokienez. Foru

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

agindu hori 2008ko martxoaren 14an jakinarazi zitzaien Nafarroako Gobernuari eta Estatuko Administrazioari.

7.- Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritza Bereziaren bitartez 2008ko apirilaren 29a bidali eta maiatzaren 6an erregistratutako idatzian erantzun zuen Gipuzkoako Foru Ogasunak berarentzat erreklamatzeko dituen eskumenak Nafarroako Gobernuari dagozkiola.

8.- Gatazka hau Arbitraje Batzordean planteatu zen egunean, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuak aurkeztutako inibizio errekerimenduari erantzunik eman gabe zegoen oraindik Nafarroako Gobernua.

2. 2008ko irailaren 12ko bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau tramitera onartzea eta hura planteatu izana entitateari jakinaraztea. Jakinarazpena 2008ko urriaren 1ean egin zitzaion.

3. 2008ko azaroaren 7an aurkeztu eta hil horren 10ean Arbitraje Batzorde honetan erregistratutako idatzian, Nafarroako Gobernuak bi alegazio egin zituen: alde batetik, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak ez duela eskumenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioaren artean sortzen diren gatazkak ebazteko –lehen ondorio gisa dio “gisa horretako auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ebatzi behar direla, gatazka horiek administrazioek sustatu edo, adibidez, gatazka negatiboen kasuan, partikularrek sustatu–; eta bestetik, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen eskumena errefusatzen denez, ez duela inolako arrazoibiderik ematen gatazkaren mamiari buruz.”

4. Espedientea amaitu eta ikusgai jarri ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen 2009ko otsailaren 17an, hurrengo egunean erregistratu zirenak.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Planteatu den gatazka honetan Arbitraje Batzordeak erabaki behar du zer administrazio den eskuduna “AAAAAAA, SA” entitateak 2006ko irailaren 20ra arte eragindako eragiketen 2006ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hirugarren hiruhilekoagatik aurkeztu beharreko aitortpen-likidazioa kudeatu, likidatu eta biltzeko. Data horretan, “AAAAAAA” entitateak Gipuzkoatik Nafarroara aldatu zuen sozietate helbidea, eta aitortpen-likidazio horretan XXXXXXXX euro ordaintzea atera zitzaion.

2. Hala eta guztiz ere, gai horri heldu aurretik, beharrezkoa da aztertzea Arbitraje Batzorde hau gatazka ebazteko eskumen gabea dela dioen alegazioa, Nafarroako Gobernuak honako argudioak erabilita aurkeztu duena:

1.- Ez Ekonomia Itunak eta ez Hitzarmen Ekonomikoak ez dute aurreikusten arbitraje batzordeek gatazkarik ebatzi dezaketenik Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean.

2.- Kontuan izan behar da bai Hitzarmena eta bai Ituna Estatuarekiko harremanak bideratzeko tresna direla, eta beren artikuluetan ez dela ezartzen inolako erlazio, lotura edo konexio “horizontalik” lurralde historikoen eta Nafarroako Zerga Administrazioaren artean. Gainera, Ekonomia Itunak, Hitzarmenak Nafarroan egiten duen bezala, finantza eta zerga arloko harremanak arautzen ditu Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean, azken hau unitate gisa hartuta. Erkidego horretan lurralde historikoak izateak ez du zertan lausotu edo hutsaldu harreman horien izaera.

3.- Gaurko araudiaren arabera, Ituneko eta Hitzarmeneko arbitraje batzordeek ezin dituzte ebatzi Euskadiko lurralde historikoen eta Foru Komunitatearen arteko gatazkak haien eskumenak nabarmen zanpatuta ez bada. Alde horretatik, dio Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebaztea Nafarroako zerga eskumenak justifikaziorik gabe zanpatzea izango litzatekeela. Horrez gain, Nafarroa ez da Erkidego Autonomo bat, Foru Komunitate bat baizik, eta hori desberdina da.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

4.- Bere literalean, Ekonomia Itunak aukera emateak foru aldundiei erkidego autonomoen aurka (ez Foru Komunitatearen aurka) gatazkak planteatzeko, “ezin ditu hutsaldu eta kontraesanen jarri Ekonomia Itunaren eta Hitzarmenaren funtsezko oinarriak: zerga eta finantza arloko harremanen erregulazio eskusiboa Euskal Herriaren eta Estatuaren artean batetik, eta Nafarroaren eta Estatuaren artean bestetik”.

5.- Hala Hitzarmeneko 51.1.b) artikulua nola Ituneko 66.bat.a) artikulua errealitate juridikoak inposatzen duen zentzuan interpretatu behar dira, alegia, ez Hitzarmenean ez Itunean ez dela inolako erlazio horizontalik ageri Euskal Herriko lurralde historikoen eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean.

6.- Bai Hitzarmenak eta bai Ekonomia Itunak duten izaera itundua dela-eta, arbitraje organo batek lurralde historikoen eta Foru Komunitatearen arteko gatazka tributarioak ebatziko baditu, beharrezkoa izango da alde aurretik hala adostea eta hori arau horietan jasota egotea.

7.- Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak Nafarroako Zerga Ogasunari dagokionez hartzen duen edozein erabakik ez luke inolako eraginik izango, Batzorde hori ez dago jasota Hitzarmen Ekonomikoan. Bakar-bakarrik Hitzarmeneko Arbitraje Batzordeak edo Justizia Auzitegiek utzi ditzakete eraginik gabe Nafarroako Zerga Ogasunak hartzen dituen erabakiak.

8.- Azkenik, Nafarroako Gobernuak dio gatazka hori administrazioarekiko auzien jurisdikzioan argitu beharra dagoela.

3. Gipuzkoako Foru Aldundia ez dator bat Nafarroako Gobernuak emandako argudioekin, eta bere alegazio-idatzian honela erantzun zuen:

a) Ekonomia Ituneko 66. artikulua ez ditu Arbitraje Batzorde honen eskumen esparrutik kanpo uzten Nafarroako Foru Komunitatearekin sor daitezkeen auziak, eta, beraz, aipatutako artikuluan jasotzen den “beste edozein erkidego autonomo” espresioan Komunitate hori ere sartu beharra dago.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

b) Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren aplikazioan, Nafarroako Foru Komunitatea “Estatuaren“ (lurralde erkidearen) parte da ondorio guztietarako, Arbitraje Batzordeari eskumenak ematea barne.

c) Planteatutako gatazka ebazteko, bide jurisdikzionaletik jotzea, Nafarroako Gobernuak proposatzen duen bezala, Ekonomia Itunaren 67. artikuluko azken paragrafoan jasota dago, baina betiere Ituneko Arbitraje Batzordeak gatazka ebatzi eta gero Zuzenbidean zilegi den eran eta bidezko ebazpena dela medio.

4. Gai honen ingurukoak argitzea aldera, kontuan izan behar dugu zer dioen 66.bat artikuluan Ekonomia Itunaren Legeak, haren arabera Arbitraje Batzordeak honako eginkizunak baititu:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.”

Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 65., 66. eta 67. artikulua garatu zituen.

5. Bada, Ekonomia Itunean ez dago ezin prezeptu Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Herriko foru aldundien arteko gatazkak ezagutzeko eskumena Arbitraje Batzorde honi erabat kentzen dionik. Indarrean dagoen Itunak, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutakoak bezalaxe, bai bere hasierako idazkeran eta bai abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak sartutakoan, argi eta garbi dio Arbitraje Batzorde

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2008	R10/2011	2/05/2011	Nafarroako Foru Komunitatea	Gipuzkoako Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

honek “eskumena duela Estatuko Administrazioaren eta foru aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebazteko.”

6. Egin dugun interpretazio gramatikal hori babesteko, hizpidera ekar dezakezu Auzitegi Gorenaren 4196/2009 Sententzia, 2009ko maiatzaren 26koa, 365/2008 errekurtsioan emana. Sententzia horren doktrinatik ondorioztatzen da Hitzarmenaren (edo, kasu honetan, Itunaren) ikuspegitik, gainerako autonomia erkidegoek tratamendu homogeneoa dutela ondorio hauetarako.

7. Bestalde, Auzitegi Gorenak dagoeneko ebazpena eman du BEZaren saldoak toki batetik bestera aldatzeari buruzko gaiaren inguruan. Izan ere, auzi honetan eztabaida bakarra da zilegi ote den BEZaren kuotak zatikatzea helbide aldaketa bat izan denean, eta aipatutako Auzitegiak dagoeneko zatikapenaren alde ebatzi du gai honetan (ikus 2010eko ekainaren 10eko Sententzia, gure 17/2008 espedienteari buruzkoa, eta 2010eko ekainaren 17koa, gure 20/2008 espedienteari buruzkoa). Hortaz, argi badago helbidea Gipuzkoara aldatu arte BEZa ordainaraztea Gipuzkoari zegokiola, horrek dakartzan ondorioak hartu beharko dira kontuan, alegia: Gipuzkoa denez, oraingo honetan, BEZa ordainarazteko eskuduna, aitorpen-likidaziotik eratorritako zenbatekoak hari dagozkio.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Adieraztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga Administrazioari dagokiola “AAAAAAA, SA” entitateak 2006ko irailaren 20ra arte egindako eragiketen 2006ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hirugarren hiruhilekoagatik aurkeztu beharreko aitorpen-likidazioa kudeatu, likidatu eta biltzea. Data horretan, “AAAAAAA” entitateak Nafarroara aldatu zuenez sozietate helbidea, aitorpen-likidazio horren emaitza (XXXXXXX euro itzultzea) jaso duen administrazioak (Nafarroako administrazioak) Gipuzkoako Ogasunari transferitu beharko dio zenbateko hori.